

ENTZIKLOPEDIA ENBLEMATIKOA
LA ENCICLOPEDIA EMBLEMÁTICA

ETOR - OSTOA

GUÍA DE LA COSTA VASCA

EUSKAL KOSTALDEKO GIDA

HISTORIA MARÍTIMA

ITSASOKO HISTORIA

ARGITALETXEA / EDITA: © ETOR-OSTOA S.L. Lasarte-Oria

ARGITALPENAREN ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN EDITORIAL
Enrique Ayerbe Etxebarria

ITZULPENA / TRADUCCIÓN
BAKUN S.L.

IRUDIAK / ILUSTRACIONES
Fondo editorial OSTOA, S.A.
«ITSASOA. El mar de Euskalerría. La naturaleza, el hombre y su historia»
Pedro Tapias

MAKETAZIOA ETA DISEINU GRAFIKOA / MAQUETACIÓN Y DISEÑO GRÁFICO
Begoña Goikoetxea Amonarraiz
José León Huarte Ros

IRUDIEN TRATAMENDUA / TRATAMIENTO DE IMÁGENES
Pedro Tapias Anabitarte

INPRIMAKETA ETA KOADERNAKETA / IMPRESIÓN Y ENCUADERNACIÓN
GRAFO S.A. Basauri

ISBN: 978-84-96288-94-2
Lege gordailua / Dep. Legal: BI-2144/2010

ENTZIKLOPEDIA ENBLEMATIKOA LA ENCICLOPEDIA EMBLEMÁTICA

ETOR - OSTOA

GUÍA DE LA COSTA VASCA

HISTORIA MARÍTIMA

EUSKAL KOSTALDEKO GIDA

ITSASOKO HISTORIA

ÍNDICE - AURKIBIDEA

GUÍA DE LA COSTA VASCA

EUSKAL KOSTALDEKO GIDA

LAPURDI

GUÍA DE LA COSTA LABORTANA

BAYONA.....	9
ANGLET	32
GUÉTHARY Y BIDART	33
BIARRITZ	36
SAN JUAN DE LUZ	46
ZIBURU (CIBOURE) Y SOKOA	61
HENDAYA.....	64

LAPURDI

LAPURDIKO KOSTALDEKO GIDALIBURUA

BAIONA.....	9
ANGELU.....	32
GETARIA ETA BIDART	33
BIARRITZ	36
DONIBANE LOHIZUNE	46
ZIBURU ETA SOKOA	61
HENDAIA.....	64

GIPUZKOA

GUÍA DE LA COSTA GUIPUZCOANA

HONDARRIBIA.....	73
PASAIA.....	86
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN	95
ORIO	109
ZARAUTZ	113
GETARIA	119
ZUMAIA.....	128
DEBA.....	137
MUTRIKU	142

GIPUZKOA

GIPUZKOAKO KOSTALDEKO GIDALIBURUA

HONDARRIBIA.....	73
PASAIA.....	86
DONOSTIA.....	95
ORIO	109
ZARAUTZ	113
GETARIA	119
ZUMAIA.....	129
DEBA.....	138
MUTRIKU	143

BIZKAIA

GUÍA DE LA COSTA VIZCAÍNA

ONDARROA.....	151
LEKEITIO	162
EA	169
ELANTXOBE.....	172
MUNDAKA.....	176
BERMEO.....	185
BAKIO.....	193
ARMINTZA	194
SOPELA, BARRIKA, PLENTZIA, GORLIZ.....	196
GETXO	199
ABANTO Y CIÉRVANA/ABANTO ZIERBENA.....	204
SANTURTZI	204

BIZKAIA

BIZKAIKO KOSTALDEKO GIDALIBURUA

ONDARROA.....	151
LEKEITIO	162
EA	170
ELANTXOBE.....	174
MUNDAKA.....	177
BERMEO.....	186
BAKIO.....	194
ARMINTZA	196
SOPELA, BARRIKA, PLENTZIA, GORLIZ.....	198
GETXO	203
ABANTO ZIERBENA.....	207
SANTURTZI	208

NOTA EDITORIAL

E

En esta guía de la costa vasca, se recuperan parcialmente los textos de Iñaki Linazasoro, que fueron publicados en la colección ITSASOA *El mar de Euskalerría. La naturaleza, el hombre y su historia* (1984-1989).

Junto a las fotografías más recientes se recuperan también algunas fotografías aéreas que tienen valor testimonial y permiten apreciar los importantes cambios que han tenido lugar sobre todo en las instalaciones portuarias y en urbanizaciones costeras.

El texto está salpicado de sugestivas noticias y de datos que nos abren a la historia de los asentamientos costeros.

Se nos informa tanto sobre el patrimonio arquitectónico, como sobre el calendario festivo y con estilo desenfadado y en ocasiones irónico caracteriza las poblaciones.

ARGITALDARIAREN OHARRA

E

Euskal kostaldeko gida honetan Iñaki Linazasororen zenbait lan berreskuratu dira, ITSASOA. *Euskal Herriko itsasoa. Natura, gizakia eta bere historia* (1984-1989) bilduman argitaratu ziren lanetatik.

Oraindik orain eginak diren argazkiekin batera, lehen airetik egindako beste zenbait dira berreskuratuak, batez ere portu-instalazioetan nahiz itsasertzeko urbanizazioetan eman diren aldaketa nagusiak ikusteko lagungarri eta leku izango direlakoan.

Testuak albiste iradokitzaileak eskaintzen dizkigu han-hemenka eta kostaldeko kokalekuen historian barneratzeko datuak.


Ondare arkitektonikoari eta jai-egutegiari buruzko informazioa ematen zaigu, herrien ezaugarriak bistarazten dituen estilo askean eta zenbaitetan nasaian.

GUÍA DE LA COSTA LABORTANA



LAPURDIKO KOSTALDEKO GIDALIBURUA





Kostaldearen itxura, Biarritzetik Donibane Lohizunerantz.
Atzealdean, Larrun mendia.

Aspecto de la costa, desde Biarritz hacia San Juan de Luz.
Al fondo el monte Larrun.

GUÍA DE LA COSTA LABORTANA

BAYONA

L

Lapurdi, el territorio más occidental de Iparralde con su extensión de 857 km², se precia de tener de capital a Bayona. Pocas poblaciones ofrecen un carácter tan acusado y pintoresco. Bayona, como gustaba a Walter Benjamín, sorprende al visitante sin que ella se sorprenda.

Avatares históricos

Las citas más antiguas sobre esta capital alcanzan a la dominación romana del s. IV, siendo Bayona sede del tribuno de la Novempopulania, enclave siempre vigilante ante los insatisfechos aquitanos y vascones.

Siglos después, escarmentada por las invasiones de visigodos, vikingos y normandos, Bayona se organiza como ciudad hasta que en 1193 los vizcondes de Labourd —sus *jauntxos*— abdicar de sus derechos a favor de la corona inglesa.

Según el historiador Risco, antes de que los ingleses se apoderasen de Lapurdi, este territorio pertenecía a los reyes de Navarra. No obstante, la época de esplendor de la ciudad coincide con los tres siglos (mediados del siglo XII a mediados del XIV) que estuvo gobernada por los reyes de Inglaterra que ostentaban a su vez el título de Duques de Aquitania. Ellos potenciaron el puerto fluvial, concedieron franquicia de peajes a los mercaderes y comerciantes, redactaron el Fuero e incluso acuñaron moneda bayonesa en el Chateau Vieux. Así, Bayona pasó a ser su principal baluarte naval en el golfo de Gascuña.

La incorporación de Bayona y su región a la corona francesa en 1451, equivalió a la pérdida de los derechos municipales y al consiguiente empobrecimiento.

Desde siempre los reyes de Castilla y de Francia ambicionaban Bayona y por eso la disfrazaron de fortín militar y plaza fuerte importante, próxima a la línea fronteriza, aspecto que desagradó a Víctor Hugo en su segunda visita a la ciudad. Para dar cabida a las instalaciones militares, en 1523 destruyeron barrios urbanos bayoneses. El

LAPURDIKO KOSTALDEKO GIDALIBURUA

BAIONA

L

Lapurdik, Iparraldeko lurralderik sartal-dekoenak, 857 km² ditu eta Baiona du hiriburu. Hiri gutxi dute hain izaera nabarmena eta bitxia. Walter Benjaminek esan ohi zuen bezala, Baionak bisitariak harrituta uzten ditu, hiria bera ez da harritzen ordea.

Gertakizun historikoak

Baionari buruzko aipamen antzinakoenak erromatarren garaikoak dira, IV. mendekoak hain zuzen. Novempopulaniako tribunoaren egoitza zen, akitaniar eta baskoi ase gabekoen aurrean beti erne.

Mendeetan aurrera eginda, bisigodoen, bikingoen eta normandiarren erasoen eskarmentua izan ostean, hiri bezala antolatzen da Baiona. 1193an, ordea, Lapurdiko bizkondeek —*jauntxoek*— eskubideei uko egin eta Ingalaterrako errege-erreginen eskuetan jarri zuten hiria.

Risco historiagileak adierazitakoaren arabera, ingelesek Lapurdi hartu aurretik Nafarroako errege-erreginen lurraldea zen. Dena dela, hiriaren garai bikainena Ingalaterrako errege-erreginen eskuetan egondako hiru mendeak dira (XII. mendearen erdialdetik XIV. mendearen erdialdera arte). Garai hartan Ingalaterrako errege-erreginak Akitaniako dukeak ziren. Ibai-portua sustatu zuten, merkatari eta salerosleei bidesariak kobratzeko eskubidea eman zieten baionarrei, eta Baionako txanponak egin zituzten gaztelu zaharrean. Horrenbestez, Baiona izan zen Ingalaterrako errege-erreginen baluarte nagusia Gaskoniako golkoan.

1451n, Baiona eta haren eskualdea Frantziako errege-erreginen eskuetan geratu zenean, udal-eskubideak galdu eta txirotu egin ziren.

Betidanik, Gaztelako eta Frantziako errege-erreginek Baiona hartu nahi izan zuten; horregatik, gotorleku itxura eman zioten, mugako hiri baten itxura. Hain zuzen ere, Víctor Hugo Baionara egindako bigarren bisitan, gotorleku-itxura hura ez zitzaion batere atsegina irudit. Instalazio militarrek jartzeko, Baionako auzo batzuk suntsitu zituzten 1523an.



Desembocadura del Adour / Aturri ibaiaaren bokalea.

Biarritz





Bidartetik Donibane Lohizunera bitarteko hondartzak
Tramo de playas entre Bidart y San Juan de Luz



San Juan de Luz / Donibane Lohizune.



Donibane Lohizuneko ikuspegia, Biarritz aldera.
Vista de San Juan de Luz hacia Biarritz



Kostaldeko flyscha. Atzealdean, Larrun mendia.
Flysch costero. Al fondo el monte Larrun

Hendaia y la Bahía de Txingudi. Al fondo el monte Jaizkibel / Hendaia eta Txingudiko badia. Atzealdean, Jaizkibel mendia.



BAIONAREN ETA BIARRITZEN GRABATUAK



Baionaren grabatua.
Grabado de Baiona.



Baionako kaia, Errobi ibaian.
Embarcadero en Baiona sobre el río Nive .



Grabado de Biarritz / Biarritzen grabatua.



Aturriren bokalearen grabatua, eta hartan, Baionako barra eztabaidatua.
Grabado de la desembocadura del Adour con la problemática barra de Baiona.



Gabarra en el río Adour / Gabarra bat, Aturri ibaian

Aturri ibaia zeharkatzeko zubia, Baionan.

Puente sobre el Adour en Baiona.





El Adour en la zona portuaria / Aturri, portu aldean.



El río Nive a su paso por Baiona / Errobi ibaia, Baionan zehar.

genio militar Vauban erigió la Ciudadela y la fiebre de las fortificaciones continuó hasta mediados del s. XIX. Gracias a semejantes laberintos, Bayona resistió el bloqueo del general Wellington.

Entre ríos dos Bayonas

A pesar de los condicionamientos defensivos, en la Edad Media la ciudad se extendía hasta los límites naturales marcados por los ríos Nive y Adour. Los romanos se afincaron en lo alto de la colina donde hoy se asienta la catedral, enclave al que denominaron *Lapurdum*.

El Adour es el espinazo donde se vertebran las más importantes arterias trazadas en los s. XVII y XVIII: la avenida de *Boufflers* y la de *Paulmy*, la *rue Thiers* y la *Port Neuf*. En este ordenamiento urbano influye La Nive que se abraza al Adour en el *Reduit*, a la vista del palacio municipal.

El parsimonioso Adour en sus últimos 30 km, es el límite septentrional de Euskal Herria. Nada más cruzar el hermoso puente de *Saint Esprit*, pisamos Gascuña.

A mediados del siglo XIX, el *barrio gascón* de Saint Esprit, quedó anexionado a Bayona. En 1602 se establecieron en esta zona numerosos judíos expulsados de España. Tenemos pues una Bayona gascona y una Bayona vasca.

El puerto

En sus últimos y anchurosos 7 km, el mencionado río forma el puerto fluvial de Bayona, por lo menos desde 1578, puesto que no siempre desembocó en el mar por

Vauban jenio militarrek zitadela eraiki zuen, eta gotorlekuak XIX. mendearen erdira arte iraun zuen. Labirinto haiei esker, Wellington jeneralaren blokeoari aurre egin zion Baionak.

Ibaien artean bi Baiona

Defentsa-premiak hirigintza baldintzatzen bazuen ere, Erdi Aroan hiria Errobi eta Adur ibaiek jarritako muga naturalen artean hedatu zen. Erromatarrek gaur egungo katedrala dagoen muinoaren gainean jarri ziren, eta enklabea *Lapurdum* esaten zioten.

Adur ibaiaren inguruan daude XVII eta XVIII. mendeetan eraikitako kale garrantzitsuenak: *Boufflers* eta *Paulmy* hiribideak, *rue Thiers* eta *Port Neuf*. Hiri-antolaketa horretan eragina du Errobi eta Adur ibaien elkarguneak (*le Reduit*), udal-jauregitik ikusten denak.

Adur patxadatsua, azken 30 km-tan, Euskal Herriaren ipar-muga da. Izan ere, *Saint Esprit* zubi ederra zapaldu orduko Gaskonian gaude.

XIX. mendaren erdialdean, Sant Esprit *auzo gaskoia* Baionari anexionatu zitzaion. 1602an Espainiatik bidalitako hainbat judu auzo horretan bizitzen jarri ziren. Horrenbestez, Baiona gaskoia eta Baiona euskalduna bereizi daitezke.

Portua

Azken 7 km zabaletan, Baionako ibai-portua da Adur. Hala da behintzat 1528z geroztik. Dena dela, gaur egungo Boucau ez da itsasorako bide bakarra izan; beste irteera



el Boucau actual, sino que tuvo otras salidas —una de ellas fue en Capbreton— que quedaron cegadas por los temporales.

Sería curioso conocer la ingente cantidad de vino, aceite, trigo y lanas procedentes del reino de Navarra que se embarcaron en el puerto bayonés.

En ambas orillas del río se ubica la zona industrial y los muelles de atraque donde se han cargado azufre de Lacq, refinados de petróleos, cementos, madera de las Landas y del maíz que a raudales se cosecha en esta región.

Todo este movimiento se ha organizado por la *Cámara de Comercio y Navegación de Bayona*, institución fundada en 1726 que medio siglo después consiguió que el puerto fuese declarado puerto franco.

En la margen izquierda a la altura del *barrio residencial de Blanc Pignon* —su nombre es el de un reputado médico del s. XVI— que ya es término municipal de Anglet, se halla el *Club Náutico* dotado de óptimas instalaciones de atraque para canoas, pequeños yates, balandros y demás embarcaciones de recreo.

La ciudad

Es agradable pasear por las calles de Bayona que hacen honor a la divisa oficial de la ciudad: *Numquam polluta*. Hasta la parte amurallada de fosas y baluartes pierde su hosco talante con tanta zona verde.

Merodeemos por la **gran Bayona** arrancando en la Mairie, el señorial palacio municipal anclado en el amplio meandro que describe el río.

batzuk ere erabiltzen zituzten —esate baterako, Capbreton— baina ekaitzen ondorioz itxita geratu ziren.

Auskalo zenbat ardo, olio, gari eta artile ontziratu zuten Baionako portuan, Nafarroatik ekarrita.

Ibaiaren bi ertzetan hedatu dira industria-gunea eta moilak. Haietan ontziratu dute Lacq eskualdetik ekarritako sufrea, petrolio findua, zementua, Landetako egurra, eta eskualdeko arto-uzta oparoak.

Mugimendu hori guztia *Baionako merkataritza- eta nabigazio-ganberak* antolatu du. Erakundea 1726an sortu zen, eta mende erdi bat geroago Baiona portu aske izatea lortu zuten.

Ibaiaren ezker aldean, *Blanc Pignon* bizitegi-auzoaren parean (XVI. mendeko mediku ospetsu baten izena jarri zioten auzoari) Klub Nautikoa aurkituko dugu, Angeluko udal-barrutian. Txalupa motordunak, yate txikiak, bailandrak eta gainerako laketontziak atrakatzeko instalazio ezin hobeak ditu.

Hiria

Baionako kaleetan ibiltzea atsegina da; izan ere, hiriaren ikur ofiziala —*Numquam polluta*— ondo irabazia du Baionak. Lubakiz eta baluartez jositako inguru harresituaren zakartasuna ere aintzen dute baionarrek hainbeste berdegune jarrita.

Baiona handian ibiliko gara eta udaletxea (*la Mairie*), ibaiaren meandro handian ainguratutako udal-jauregi dotorea, izango da gure abiapuntua.

En su parte posterior se extienden la provinciana *Plaza del General de Gaulle* dotado de quiosco para la música y los contiguos *Jardines de León Bonnat* presididos por un busto del pintor. Desde aquí conectamos con cualquiera de las concurridas calles comerciales: *Thiers*, *Victor Hugo*, *Port Neuf*, de soportales animados.

Enfilaremos hacia el otero pasando junto a los muros del *Château Vieux* (Castillo Viejo). Archivo y biblioteca municipal prestigiosos. El obispado, la *plaza de Pasteur* con sus magnolios...

La catedral

La visita a la catedral puede ser el objetivo del periplo. Es creencia que antaño, los romanos tenían en este mismo emplazamiento un templo dedicado a Juno. La catedral está dedicada a *Notre Dame* como la mayoría de

sus homónimas galas. Es de mediados del siglo XIII y la construyeron en estilo gótico siguiendo el trazado de las ya existentes en la Champagne francesa aunque en dimensiones más reducidas.

Consta de una nave central provista de triforio, dos naves más bajas y girola que facilita el acceso a las capillas absidales. El altar mayor está construido en mármol de Carrara, con incrustaciones de láminas de plata repujada. Varias claves de bóveda muestran los leopardos de la corona británica. Algunas vidrieras son del s. XV.

En 1641, el edificio quedó seriamente dañado por un incendio. Las flechas de remate de los campanarios se reconstruyeron hace un siglo. El claustro servía de lugar de reunión pública, para procesiones y actos litúrgicos y también de cementerio. Entre otras, se encuentra la tumba de la princesa Leopoldina de Lorraine. La arquería del claustro es amplia y bella. En la portada, que después de unas reformas quedó dentro de la sacristía, una de las archivoltas se decora con ángeles músicos y uno de éstos, toca el txistu y el tamboril.

Continúa el paseo

Por *Lachepaillet* pasaremos junto a la vetusta torre de la *Boucherie*. Atravesaremos la carretera N-10 y nos situaremos en una parte bien conservada de murallas y fosos, con la *Puerta de España* y la fuente y ermita de mediados del s. XVII que conmemora el martirio de San León, patrono de Bayona, diócesis de la que fue su obispo en el s. IX. En este distrito se ubican los complejos deportivos municipales y del Club Aviron Bayonnais.

Abandonamos las fortificaciones para salir a la *alameda Paulmy*, embellecida por una hilera de típicas casas unifamiliares de estilo vasco, jardines, parques y, al fondo, la muralla con el monumento a los muertos en la I Guerra Europea, que diseñó Brasseur. Cerca está la plaza de toros Arenas. Se dice que la visita de Felipe V en 1701 estuvo realzada con una corrida de toros a la española y a partir de entonces, éstas fueron sucediendo paulatinamente a los encierros por las calles.

Udaletxearen atzealdean dago *De Gaulle* generalaren plaza xehea, musika-kiosko eta guzti. Haren ondoan daude *Leon Bonnat* lorategiak, margolariaren busto bat gailentzen delarik. Lorategi horietatik jo dezakegu merkataritza-kale jendetsuetara: *Thiers*, *Victor Hugo*, *Port Neuf*... eta arkupe alaiak ikusiko ditugu.

Muinorako bidea hartuko dugu eta *Château Vieux* edo gaztelu zaharraren harresien ondoan ibiliko gara, udal-artxibo eta -liburutegi ospetsuak ere ikusiko ditugu, gotzaindegia, Pasteur plaza eta hango magnoliak...

Katedrala

Katedrala bisitatzeari izan daiteke gure ibilalditxoaren helburu. Erromatarrek leku horretan bertan jarri omen zuten Junori eskainitako tenplua. Dena dela, Ama Birjinari eskainitako katedrala da (*Notre Dame*), Frantziako gehientzuen bezala. XIII. mendearen erdialdean egindako eraikin gotikoa da, Frantziako Champagne eskualdean eraikitakoen antzekoa, baina txikiagoa.

Erdiko nabeak triforioa du eta alboetako bi nabeak baxuagoak dira. Absideko habeartea du, hartara errazagoa da abside-kaperetara sartzea. Aldare nagusia Carrarako marmolez egina dago, zilarrezko xafla bozelduak txertatuta. Gangako giltzarri batzuetan lehoinabarrak ageri dira, Ingalaterrako erregeen sinbolo. Beirate batzuk XV. mendekoak dira.

1641ean sute batek kalte handiak eragin zizkion eraikinari. Kanpandorreetako orratzak orain dela mende bat berritu zituzten. Klaustroa bilera publikoak, prozesioak eta liturgia-ekitaldiak egiteko erabiltzen zuten, eta hilerri bezala ere bai. Besteak beste, han dago Leopoldine de Lorraine printzesaren hilobia. Klaustroko arkupea handia eta ederra da. Berritze-lan batzuen ondoren, portada sakristiaren barruan geratu zen; haren arkioltza bat aingeru musikariez apainduta dago, eta haietako batek txistua eta danbolina jotzen ari da.

Paseoan aurrera

*Lachepaillet*en pasatuko gara antzinako *Boucherie* dorrearen parean. N-10 zeharkatuko dugu eta egoera onean duden harresiak eta lubakiak ikusiko ditugu, baita *Espainiako Atea*, eta XVII. mendearen erdialdeko iturria eta ermita, San Leonen martirioaren oroitzapenetan. Hiriaren zaindaria da San Leon, eta IX. mendean Baionako elizbarrutiaren gotzaina izan zen. Barruti horretan daude udal-kiroldegia eta Club Aviron Bayonnais elkartearenak.

Gotorlekuak utzi eta *Paulmy zumardira* aterako gara: euskal estiloko bizitza bakarreko etxe tipikoen ilara, lorategiak, parkeak, eta, atzean, harresia, eta Lehen Mundu Gerran hildakoen omenez egindako monumentua, Brasseur diseinaturia. Gertu dago Arenas zezen-plaza. Esaten dute 1701ean Filipe V.ak bisita egin zuenean korrida bat antolatu zutela, Espainiakoen antzera. Harrezkero, kaleko entzierroen ordezkorridak jartzen hasi omen ziren, pixkanaka.

La Petite Bayonne

Por el *punte de Mayou* pasaremos a la **Petit Bayonne**. Queda enfrente el *Reduit* como proa que corta las aguas de los dos ríos. Los bayoneses levantaron en bronce, un monumento a su paisano un *cardenal Lavigerie*, el apóstol de África.

Por la típica *rue Bourgneuf* nos adentramos en la medieval Petit Bayonne que tiene un hermoso *Liceo Técnico* y la iglesia de *San Andrés*, neogótica con sus dos torres chatas que recuerdan a Notre Dame de París; en el interior hay una *Asunción* magnífica firmada por Bonnat.

En la plaza contigua estacionan los autobuses de línea procedentes de los pueblos del interior, por lo cual es donde más se oye hablar en euskera. En frente se halla el *Chateau Neuf*, del s. XVII.

El Museo Bonnat y el Musée Basque

En la calle de *Federico Bastiat* (eminente político) tenemos el muy importante **Museo León Bonnat**, modernamente montado. Encierra 142 obras de arte del propio Bonnat, vigoroso pintor bayonés (1833-1922), que donó en vida a su ciudad natal esmaltes, tapices, marfiles y toda una valiosa colección de obras de arte para que con ella se fundara un museo. Podemos admirar objetos de etnografía egipcios, esculturas de Rodin, grabados de Rembrandt y Durero, pintura religiosa del siglo XIV y óleos de maestros de la pintura flamenca, alemana, italiana, española, francesa.

Muy cerca, reflejándose en el cauce del Nive, en la *casa Dagourette* de fachada renacentista, se ubica el entrañable **Musée Basque** inaugurado en 1934 bajo la dirección de C. W. Boissel, gracias a donaciones recibidas. Dispone de una rica sección de arqueología, etnografía y un buen archivo de la tradición bayonesa.

Barrio de St. Esprit

Por el airoso *punte de Saint Esprit*, trepidante engarce de la Bayona vasca con la gascona, cruzaremos el Adour. En el barrio que presta su nombre al puente, se alza la hermosa estación de ferrocarril y junto a ella, la pequeña *iglesia de Saint Esprit* del gótico tardío, donde se venera un bello grupo tallado en madera (s. XV) que representa la huida de Egipto y recibe el nombre de *Virgen de los Viajeros*. En la *calle Maubec* de este barrio se encuentran la *sinagoga* y el *cementerio israelita*.

En una colina, frente a los muelles de Lesseps, está el antiguo fuerte o *Ciudadela* (s. XVII) otra de las realizaciones del incansable Vauban.

Rodean a la ciudad paseos y paisajes muy pintorescos, algunos de los cuales unen Bayona con Anglet y Biarritz (B.A.B.) siendo dificultoso señalar los límites de los tres municipios reunidos en un único núcleo de población de más de 100.000 habitantes en 64 km² de superficie.

Bayona administrativa

Política y administrativamente Iparralde depende de la Prefectura de los Pirineos Atlánticos con sede en Pau,

Baiona Txikia

Mayou zubitik Baiona Txikira pasatuko gara (*la Petit Bayonne*). Aurrean dugu *le Reduit*, bi ibaietako urak ebakitzen dituen branka baten antzera. Baionarrek brontzezko monumentua egin zioten *Lavigerie kardinal* baionarrari, Afrikako apostoluari.

Kale tipiko bat hartuko dugu, *rue Bourgneuf*, Erdi Aroko Baiona Txikian sartzeko. Auzoak *Lizeo Tekniko* ederra du. *San Andres* eliza neogotikoa da, eta bi dorre zapal ditu, Parisko Notre Dame gogorazten dutenak; barrualdean *Ama Birjina* ederra aurkituko dugu, Bonnatek egina.

Alboko plazan lineako autobusak egoten dira, barrualdeko herrietatik etorritakoak, horregatik inguru horretan euskara gehiago entzuten da. Aurrean dago *Château Neuf* edo gaztelu berria, XVII. mendekoa.

Bonnat museoa eta Euskal museoa

Federico Bastiat politikoa gailenaren izena daraman kalean garrantzi handiko museoa dago: Bonnat museoa, instalazio modernoek hornitua. León Bonnat (1833-1922) margolari baionar kementsuaren 142 artelan daude ikusgai. Artista bizirik zegoela sorteriari egindako dohaintza da: esmalteak, tapizak, marfilak eta artelan-bilduma oso bat, haiekin museo bat sortzeko. Museoan ikus ditzakegu Egiptoko objektu etnografikoak, Rodinen eskulturak, Rembrandten eta Dureroren irarlanak, XIV. mendeko pintura erlijiosoak eta Flandesko, Alemaniako, Italiako, Espainiako eta Frantziako maisuen olioak.

Oso gertu, Errobi ibaian islaturik, *Dagourette* etxea ikusiko dugu, Errenazimentuko aurrealde duena. Han dago *Musée Basque* kuttuna. Jasotako dohaintzei esker, 1934an inauguratu zuten, C.W. Boissel zuzendari zela. Arkeologiari eta etnografiari eskainitako atal oparoa du eta Baionako tradizioen artxibo bikaina.

Saint Esprit auzoa

Adur gaineko *Saint Esprit zubi* liraina, Baiona gaskoia eta Baiona euskalduna batzen dituen, zeharkatuko dugu. Zubiari izena eman dion auzoan trenbide-geltoki ederra dago. Haren ondoan *Espiritu Santuaren eliza* txikia ikusiko dugu, gotiko berankorra. Egurrean zizelkatutako artelan ederra dago han, XV. mendekoa; Egiptoko ihesa irudikatzen du eta *Bidaiairen Ama Birjina* esaten diote. Auzoko *Maubec* kalean, berriz, *sinagoga* eta *israeldarren hilerria* daude.

Muino batean, Lesseps moilen parean, antzinako gotorlekua edo zitadela dago, XVII. mendekoa, Vauban nekazetxak egina.

Hiriaren inguruan paseo eta paisaia bitxiak daude, haietako batzuk Baiona, Angelu eta Biarritz (BAB) batzen dituzte. Zaila da hiru udalerrien mugak zehaztea, 100.000 biztanle eta 64 km² dituen hirigune bakarra osatzen baitute.

Administrazioa

Politikaren eta administrazioaren esparruan, Pirinio Atlantikoen Prefekturaren mendean dago Iparralde. Haren egoi-



Baiona en la confluencia de los ríos Adour y Nive desde la Réduit / Aturri eta Errobi ibaiek bat egiten dute Baionan.

y Bayona detenta una subprefectura a pesar de que las peticiones ciudadanas para la creación de una prefectura bayonesa vasca se vienen sucediendo desde hace un centenar de años. Pero eso no obsta para que Bayona sea el centro económico y cultural de Iparralde.

Excursión a Moguerre, Belloc y Labastide

Abandonemos la ciudad por la orilla izquierda del *Ibai ona*, el Adour. (Quién sabe si el mismo nombre de la ciudad no haya sido Ibaiona). Todavía se puede ver el *chemin de halage*, camino de sirga, por el cual las caballerías remolcaban las barcazas que remontaban el río.

A unos 8 km se halla **Moguerre** en un altozano, con el *templo de San Juan Bautista* de dos galerías rústicamente talladas, interesantes óleos historicistas y estelas discoideas. Las *casas Mahatcheverria* y *Mikoltegi* de curiosa arquitectura vasca, están en la misma plaza, y en las afueras, el *palacio de Agerria* con fachada limitada por dos torres. En lugar prominente se halla un monolito rodeado de cañoncitos a la memoria de los muertos por la patria 1813-1814. Imponentes panorámicas.

Continuamos hasta **Lahonce** donde hubo una abadía de premostratenses fundada en el siglo XII en terrenos donados por el vizconde de Gers. Una isla de 43 hectáreas anclada en el centro del Adour perteneció a esta abadía de la que podemos admirar la iglesia románica y su rico ábside. Es curiosa la espadaña trinitaria de la iglesia al estilo de las zuberotarras.

El siguiente municipio es **Urketa** (Urcuit en el nomenclador administrativo) encantador pueblo residencial. Tiene una pequeña iglesia de portada gótica con capital en friso decorado con rústicas labras. El retablito central se reserva al titular del templo *San Esteban*. Bella hilera de *illarriak* o estelas funerarias. Un poco apartado se halla el *château de Souhy* y junto a la carretera, el *molino y puente de Eyheraxarria*.

Al acercarnos a **Urt** nos podremos percatar de la grandiosidad del Adour contemplándolo a vista de pájaro desde este pueblo que tuvo su puerto fluvial. Quizá llevados por la nostalgia marinera, los vecinos han colocado la maqueta de un navío en el interior de la iglesia.

tza Pauen dago, eta Baionan suprefectura dago, nahiz eta azken ehun urteotan Baionako euskal prefectura sortzeko hainbat herri-eskaera egin. Dena dela, Iparraldearen ardatz ekonomiko eta kulturala da Baiona.

Mugerrera, Bellocera eta Bastidara txangoa

Irten gaitezen hiritik, Adur edo *Ibai onaren* ezker aldeko ertzetik (Hiriaren izena ere ez ote da Ibaiona?). Oraindik ere ikus daiteke zirga-bidea (*chemin de halage*). Han zaldiek atoian eramaten zituzten gabarrak, ibaian gora igotzeko.

8 km-ra Mugerre dago, muino batean. *San Joan Bataiatzailearen elizak* bi galeria ditu, traukil landuak; olio interesgarriak ditu, pasarte historikoetan oinarrituak, eta disko-formako estelak. Plazan daude *Mahatcheverria* eta *Mikoltegi* etxeak, euskal arkitektura bitxia dutenak; eta aldirietan, berriz, *Agerria jauregia*, fatxadaren alboetan bi dorre dituenak. Toki gailenean monolito bat dago, kanoi txikiez inguratua, 1813-1814an aberriaren alde hil zirenen omenez. Sekulako bistak.

Lehuntzeraino jarraituko dugu, han premostratenseek abade-etxe bat egin zuten XII. mendean, Gers bizkondeak emandako lursailen. Abadiak 43 hektareako uhartea zuen, Adur ibaiaren erdian. Haien eliza erromanikoa ikus dezakegu, abside ederra duena. Bitxia da kanpai-horma hirukoitza, Zuberoako elizek izan ohi dutenaren antzekoa.

Hurrengo udalerria Urketa da (Urcuit da izen ofiziala), bizileku xarmanta. Eliza txiki bat du; portada gotikoa da eta traukil landutako frisoa du. Erdiko erretaula txikian *San Esteban* dago, hari eskainitako eliza baita. Hilarrien ilara ederra. Apartxeago, gaztelu bat dago: *château de Souhy*; eta, errepedearen ondoan *Eyheraxarria* errota eta zubia.

Ahurtira hurbiltzen garenean Adur ibaiaren handitasunaz ohartzeko aukera izango dugu, han goitik begiratuta. Ahurtik ere ibai-portua izan zuen garai batean, eta, agian itsasminak eraginda, itsasontzi baten maketa jarri dute herritarrek eliza barruan.



Pocos kilómetros más y alcanzaremos la *abadía benedictina de Belloc*, crisol de la liturgia vasca y baluarte del canto gregoriano. La comunidad dirige una granja piloto donde se elabora queso con leche de oveja lacha. Junto con los ganaderos y baserritarras de la zona, participa en una cooperativa agrícola. El cardenal Segura expulsado de España en tiempo de la República se refugió en esta abadía de moderna traza arquitectónica en contraste con el camposanto de vetustas estelas. A consecuencia de la expulsión decretada por las autoridades galas en 1903, varios monjes de Belloc fundaron la comunidad benedictina de Lazkao, en el Goyerri guipuzcoano.

A 3 km nada más se encuentra **Labastide-Clairence**, de bonita plaza con casas porcheadas e *iglesia de Notre Dame* con portada gótica y rústico atrio lateral. En esta villa de renombrados sombrereros, se aposentaron numerosas familias de judíos sefardíes expulsados de los reinos de Castilla y Navarra. Todavía podemos ver el *cementerio* hebreo con lápidas sepulcrales pertenecientes a Isabel Gómez, Gaspar López, Abraham Pas, una señora apellidada Imaz y otra dama enterrada el 7 de la luna de... que corresponde al 31 de julio de 1785.

Excursión a St. Jean Pied de Port

Son 56 km por la ruta del interior, carretera N-132 hasta Larressore y N-618 a partir de dicho punto.

Ustaritz

Visitaremos **Ustaritz**, municipio anclado en medio de una fértil vega bañada por el río Nive y que en tiempos tuvo puerto fluvial. En la actualidad es cabeza cantonal, pero antaño fue capital de Lapurdi durante seis siglos. Junto al viejo castillo, hoy casa consistorial, existe una plaza que recuerda a las asambleas abiertas o *biltzarrak* que en Ustaritz celebraban los labortanos. A pocos metros se halla la destacable casa *Sekastenia*, típica de Lapurdi, construida en 1570.

Sobre una colina se encuentra el seminario diocesano con un *monumento a San Francisco Javier* obra de F. Biberstein. También podemos ver el *palacio natal de los herma-*

Kilometro gutxi batzuk egin, eta Belloceko beneditarren abadiara iritsiko gara, euskal liturgiaren arragoa eta gregoriar kantuen gotorleku. Komunitateak haztegi pilotua du ardi latxen esnearekin gazta egiteko. Inguruko ganaduzaleekin eta baserritarrekin batera, nekazaritza-kooperatiba batean parte hartzen du. Segura kardinala Espainiatik kanpora bidali zutenean, Errepublikara garaian, abadia horretan aurkitu zuen babesa. Eraikina modernoa da, antzinako estelak dituen hilerria ez bezalakoa. Frantziako agintariek 1903an dekretuz agindu zutenean beneditarren kanporatzea, Belloceko fraide batzuk Gipuzkoako Goierriara joan ziren eta Lazkao beneditarren komunitatea sortu zuten.

3 km soilik eginda, Bastida aurkituko dugu: plaza polita, etxe aterpedunak, eta *Ama Birjinari* eskainitako eliza, portada gotikoa eta alboko elizpe rustikoa duena. Kapelagile ospetsuen herri horretan, Gaztelatik eta Nafarroatik bidalitako hainbat judu sefardi jarri ziren bizitzen. Orain ere ikus daiteke hebrear *hilerria*, eta hilobietan izen hauek ageri dira: Isabel Gómez, Gaspar López, Abraham Pas, Imaz abizena zuen andre bat, eta beste andre bat, haiek erabiltzen zuten egutegiaren araberrako heriotza-data idatzita (gure egutegian jarrita: 1785eko uztailaren 31).

Donibane Garazira txangoa

Barnealdeko errepidea hartuta, 56 km dira. N-132 hartu behar da Larresororaino, eta handik aurrera N-618.

Uztaritze

Uztaritze bisitatuko dugu. Errobi ibaiaren ibar emankorrean dagoen udalerria da, garai batean ibai-portua zuena. Eskualdeko buru da gaur egun, eta Lapurdiko hiriburu izan zen sei mendez. Gaztelu zaharraren (gaur egun udaletxea) ondoko plazak gogora ekartzen ditu lapurtarrek Uztaritzen egin ohi zituzten *biltzarrak*. Aipatzekoa da metro batzuk harantzago dagoen etxea: *Sekastenia*, Lapurdiko etxe tipikoa, 1570ean eraikia.

Muino baten gainean elizbarrutiko seminarioa dago, eta *San Frantzisko Xabierri monumentua*, F. Bibersteinek egina. Jauregia ere ikus dezakegu, Garat anaien jaiotetxea. Domingo Garat (1749-1833) "biltzarraren defendatzailea"



Baionako Udaletxea, Réduitetik ikusita.
Palacio del Ayuntamiento de Baiona desde la Réduit

nos Garat. Domingo, “el defensor del biltzar” es el más historiado de ellos (1749-1833) despuntó en calidad de profesor, embajador, escritor y jurista llegando a ocupar el cargo de ministro. Otro de los hermanos, Pedro, por su magnífica voz lo llamaban el *Orfeo de Francia*.

Ustaritz tiene palacetes contruidos por los indios a su regreso de las Américas. El más significativo será el *palacete Laut*, erigido en 1876 por un emigrante que regresó de Laut (Chile).

Cerquita, en lo alto y a la derecha de la ruta queda **Larresore** con sus reputados fabricantes de *makillak* y una *Pietá* patética en la iglesia.

Cambo

Pero continuemos a **Cambo**, dotada de grandes avenidas y zonas ajardinadas que hacen exclamar al viajero observador: ¡pero donde está el pueblo entre tanto jardín!

El Museo Arnaga

En el arrabal de la villa, los románticos tienen una cita en la mansión y jardines de Arnaga, creados a principios de siglo XX por encargo del dramaturgo y académico francés *Edmond Rostand*, autor de *Cyrano de Bergerac*.

La casa de Arnaga es una de las más logradas muestras de la arquitectura vasca y, en los fascinantes jardines, arbustos, surtidores, estanques, pérgolas, glorietas, gravita el estilo versallesco. En este remanso de paz escribió Rostand la obra *Chantecler*, y Arnaga fue su amada residencia los últimos doce años de su enfermiza existencia hasta que le sobrevino la muerte en 1918.

Ahora esta finca-museo es propiedad del ayuntamiento de Cambo y el público la puede visitar. El literato nos recibe con el siguiente saludo esculpido en mármol.

historia-liburuetan gehiago agertu ohi da; irakasle, enbaxadore, idazle eta legelari bezala gailendu zen, eta ministro izatera ere iritsi zen. Beste anai bati —Pedrori, hain zuzen— *Frantziako Orfeoa* esaten zioten, ahots aparta baitzuen.

Indianoek Ameriketatik itzuli ostean egindako etxe dotoreak eta jauregitxoak ageri dira. Adierazgarriena *Laut jauregitxo* izango da, 1876an Lautatik (Txile) itzultako emigratzaile batek eraikia.

Oso gertu, goian eta ibilbidearen eskuinaldean Larresoro dago, entzutetsua *makilak* egiten dituztelako eta hango elizan *Pietate* hunkigarria dutelako.

Kambo

Baina jarrai dezagun Kanbora. Etorbide zabalak ditu, eta lorategi ugari. Arretaz begiratzen duen bidaiariak galde dezake: hainbeste lorategi eta berdegune artean... non dago, ordea, herria?

Arnaga Museoa

Hiri-bazterrean, erromantikoek hitzordua dute Arnaga etxe dotorean eta inguruko lorategietan. XX. mendearen hasieran eginarazi zituen frantziar antzerkigile eta akademiko *Edmond Rostandek*, *Cyrano de Bergerac* nobelaren egi-leak.

Arnaga etxea euskal arkitekturaren emaitza bikainenetako bat da, eta hango lorategiek, zuhaixkek, iturriek, urmaelek, pergolek eta glorietek Versaillesko kutsua dute. Leku bake-tsu horretan idatzi zuen Rostandek *Chantecler*, eta Arnaga izan zuen bizileku kuttun haren bizitza gaixoberaren azken hamabi urteetan, 1918an hil arte.

Gaur egun, lursail-museoa Kanboko Udalarena da, eta jendea sar daiteke bisita egitera. Hau da idazlearen ongi-etorria, marmolean zizelatua:

Tú que vienes a compartir nuestra luz dorada a sentarte al festín de los horizontes cambiantes, entra sólo con tu corazón. No traigas nada del mundo y no cuentes lo que dicen las gentes.

En Cambo debemos recorrer los alrededores de la *iglesia de San Lorenzo* en cuyos jardines colocaron una selección de estelas funerarias. La panorámica sobre la depresión del Nive es atractiva. En el interior del templo hay una estatua de *San León*, regalada por la reina *Ana de Noe-*

Gure urrezko argia partekatzera eta zeruertz al-dakorren jaialdian parte hartzera zatozen hori, sar zaitez zure bihotzarekin soilik. Ez ezer ekarri mundutik, eta ez eman jendearen berrikeren berri.

Kanboko *San Laurendi elizaren* inguruetan ibiliko gara. Lorategian hilarri bilduma jarri zuten. Bistak oso erakargarriak dira, Errobi ibaiaren sakonunea ikusten baita. Elizaren barruan *San Leon* irudikatzen duen estatua dago, *Anne de Neubourg* erreginaren oparia. Makabro samarra da, egia



Lavigerie kardinalaren estatua.
Estatua del Cardenal Lavigerie.

BAIONA



León-Bonnat museoa.
Museo León Bonnat.



Dagourette Etxea. Euskal Museoa da gaur egun.
Casa Dagourette sede del Museo Vasco.



Tren-geltokia, Saint Esprit auzoan.
Estación de ferrocarril en Saint Esprit .





Barrio de Saint Esprit / Saint Esprit auzoa.

bourg, bastante macabra a decir verdad porque perpetúa al obispo-mártir mostrándonos con las propias manos su cabeza degollada. *Edmond Rostand* tiene un monumento y una avenida dedicados, a su memoria.

Itxassou

A ello contribuyó la presencia, por primera vez en 1838, de una rubia resplandeciente, de divinos ojos azabache y porte de reina: la belleza española Eugenia de Montijo que pocos años después, ciñó la corona de Francia al esposarse con Napoleón III. La pareja imperial, desde 1855 a 1868, transcurrió sus veranos en la fantástica mansión *Villa Eugenia*.

La presencia de los mandatarios de la República junto con la puesta en funcionamiento del tren París-Hendaya, hizo que Biarritz se convirtiera en el área turística más

Franceses iraultzaren ostean, itsasoan bainatzea ez da jada erotuta dauden pertsona bakar batzuen joera, eta Napoleón Bonaparte berak aurreiritziak apurtu zituen eta Euskal Herriko itsasertzeko uretan sartu zen. 1840an Biarritzko udala turismoa sustatzen, erakartzen eta antolatzen hasi zen, itsasoa maite dutenek hain gogoko duten leku horretan.

Victor Hugoren idazluma erromantikoak "Alpeak eta Pirinioak" liburuan konplimendu hauek esaten dizkio Biarritzi:

(Munduan ez dut ezagutzen lekurik, Biarritz baino atseginagoa eta bikainagoa denik. Neptuno zaharra inon ez dut ikusi Zibele zaharra hainbesteko indarrez, pozez eta handitasunez botatzen. Kostalde hau guztia marmarraz beteta dago. Gaskoniako itsasoak karraskatzen du, urratzen du, eta uharrietan luzatzen du haren xuxurla mugagabea. Biztanle atseginak eta etxe zuri alaiak, duna zabalak, harea fina, haitzulo galantak eta itsaso harroa, Biarritz leku zoragarria da. Nire beldur bakarra da modan jartzea. Hala gertatuz gero, Biarritz, herri basati, landatar eta oraindik ere zintzo hau diru-gose izango da. Biarritzek makalak jarriko ditu muinoetan, barandak dunetan, eskailerak amildegietan, kioskoak harkaitzetan, eserlekuak haitzuloetan, prakak turistaren soinean).

Onerako edo txarrerako, Victor Hugoren profezia bete zen. Biarritzek makalak, tamarindoak, hortentsiak, arrosoak eta pitosforoak landatu zituen ezponda eta muinoetan; barandak jarri zituen dunetan; lubakiak estali zituen eskailera dotoreekin... eta luraren espekulazioarekin eta diru-gosearekin kutsatu zen.

Horretan lagundu zuen 1838an estreinakoz etorri zen ile-hori distiratsu batek. Azabatxe-koloreko begi zoragarriak zituen eta erregina planta: Eugenia de Montijo, espainiar emakume ederra. Urte batzuk geroago Frantziako koroa jantzi zuen, Napoleón III.arekin ezkondu baitzen. Bikote inperialak 1855etik 1868ra bitarteko udak *Villa Eugenia* luxuzko etxe zoragarrian pasa zituen.

Errepublikako agintarien presentziak eta Paris-Hendaia trenbidea martxan jartzeak eragin zuen Biarritz izatea




Puerto Viejo de Biarritz e iglesia de Santa Eugenia / Biarritzko portu zaharra eta Santa Eugenia eliza.

Baleei behatzeko dorrea,
Lapurdiko kostaldean.
Torre ballenera en la costa labortana.



Mundu-gerretan hil zirenak oroitzeko monumentua.
Monumento a los muertos en las Guerras Mundiales.



Faro de Biarritz / Biarritzko itsasargia.



Panorámica del puerto viejo de Biarritz / Biarritzko portu zaharra.

chic de Europa. La reina de las playas, pasó a ser la playa de los reyes: Oscar II de Suecia; Leopoldo de Bélgica, paseante infatigable; la emperatriz de Rusia, madre de Nicolás II; Elisabeth de Austria, de trágico destino; Natalia de Serbia y su hijo el infortunado Alejandro; Jorge V de Inglaterra; Eduardo VII y la reina Victoria de Inglaterra; Alfonso XIII de España. Aristócratas, millonarios europeos y sudamericanos, actores y actrices, la *haute société* se daba cita estival en Biarritz, cuya población se disparó de 5.500 a 18.000 habitantes. A finales del siglo XIX acogía un contingente anual de 50.000 veraneantes.

Turistas modestos y encopetados admiran la costa biarrota: desde la *playa des Basques*, en la linde municipal con Bidart hasta el *cabo de San Martín*, donde se alza el blanco faro de 44 m de altura construido en 1834 en sustitución al que mandó erigir Luis XIV.

Se construyen suntuosos hoteles, el casino municipal y el *club y casino Bellevue*, que abre sus puertas en 1857, un centro de talasoterapia y maravillosas mansiones. Las tiendas más lujosas de París y Londres establecen sucursales y la prensa local publica 36 pequeños periódicos.

Paseo costero

El más remarcable de los monumentos biarrotas es la propia Naturaleza. Es, pues, recomendable emular a Leopoldo de Bélgica y pasear sin tregua dejándonos sorprender por el panorama que divisamos desde la *plaza de Santa Eugenia* y sus alrededores. El *templo* del mismo nombre es neogótico y fue deseo de Eugenia de Montijo construirlo. En su interior despunta la estatua *la femme á la fleur*, de Real del Sarte.

Sorteando el arrecife de espectaculares rocas, se acurruca el puertecito deportivoturístico, que no es el primitivo. Éste sufrió una reconversión y es ahora una calita en

Europa guztiko turismo-gunerik gailenena. Hondartzen erregina erregeen hondartza bihurtu zen: Suediako Oskar II.a; Belgikako Leopoldo, ibiltari nekaezina; Errusiako enperatriza, Nikolas II.aren ama; Austriako Elisabeth, patu tragikoa izan zuena; Serbiako Natalia, eta haren seme gaixo Alejandro; Ingalaterrako Jorge V.a; Eduardo VII.a eta Ingalaterrako Viktoria erregina; Espainiako Alfontso XIII.a. Aristokratak, Europako eta Hego Amerikako aberatsak, aktoreak... goi-mailakoak Biarritzen elkartzen ziren uda-garaian, eta biztanleen kopuruak nabarmen gora egin zuen: 5.500 biztanle izatetik 18.000 izatera. XIX. mendearen amaieran 50.000 udatar biltzen ziren Biarritzen.

Turista apal eta harroek Biarritzko itsasaldea laudatzen dute: Bidarteko mugan dagoen hondartzatik (*Plage des Basques*) *San Martín lurmuturreraino*. Han 44 m altuko itsasargi zuria dago, 1834ean eraikia Luis XIV.ak eginarazi zuenaren orde.

Hainbat hotel egin zituzten, udal-kasinoa ere bai, *Bellevue* kluba eta kasinoa 1857an ireki zituzten, talasoterapia-etxea, eta luxuzko etxe zoragarriak. Paris eta Londeneko luxu handiko dende saltokiak jarri zituzten Biarritzen ere, eta hirian 36 egunkari txiki argitaratzen zituzten.

Itsasertzean paseoa

Biarritzko momumenturik aipagarriena natura bera da. Horrenbestez, iradokitzen dugu Belgikako Leopoldoren antzera etengabe ibiltzea, eta *Santa Eugenia* plazatik eta haren inguruetatik ikusten dugunarekin harritzea eta gozatzeta. Izen bera duen *tenplua* neogotikoa da, eta Eugenia de Montijoren desioa izan zen hura eraikitzea. Elizaren barruan gailentzen da *la femme á la fleur* estatua, Real del Sartekegina.

Harkaitz ikusgarrien uharria saihestuz uzkuertzen da kirol-eta turismo-portu txikia. Ez da garai bateko portua, berria baizik. Lehengo portua hemiziklo itxurako senaia txiki bat



forma de hemicírculo que se adentra en la urbe donde se broncean los bañistas al socaire del Noroeste.

Atención especial merece la visita a la *Rocher de la Vierge*, el escollo atrevido que se adentra en el mar y al que se accede por una pasarela metálica. La roca está presidida por una Virgen y también hay una cruz en recuerdo de los desaparecidos en el *naufregio de La Surprise* acaecido a finales del siglo XIX.

Desde este pintoresco mirador se divisa la costa de Iparralde, el tridente de *Peñas de Aya/Aiako Haria*, la Acrópolis vasca del *Larrun*, el deforestado *Jaizkibel* y una sucesión de montes guipuzcoanos envueltos en una misteriosa luz violeta.

Al abandonar la Roca de la Virgen, enfrente está el *Museo del Mar* inaugurado en 1933, muy importante centro de investigaciones hidrobiológicas y aquarium.

A partir del casino Bellevue, de W a E, se asienta la *Gran Playa*, que, a la altura del *Hôtel du Palais* engarza con la *playa de Miramar* que se extiende hasta la *punta de San Martín*. Grandes peñascos flanquean el afamado arenal complementado por un anchuroso paseo peatonal, los acogedores porches del *Casino Municipal* y los *jardines de la Emperatriz*.

En primera fila de playa rodeado de zona ajardinada y artística verja, se yergue el majestuoso *Hôtel du Palais*. Al igual que otros edificios de la época victoriana, el hotel prestigia a Biarritz.

La reina Victoria de Inglaterra está perpetuada en un monumento que realizó Real de Sarte. Los rusos cuentan con su templo ortodoxo, los judíos con su sinagoga y los turistas con un centenar de hoteles, pensiones, salas de fiesta y concurridos cafés.

También sus calles costaneras y hermosos bulevares de tentador comercio constituyen una invitación al *dolce far niente*...

da orain; hirian sartuta dago eta bainu-hartzaileek eguzkia hartzen dute han, ipar-mendebaldetik babestuta.

Arreta berezia merezi du *Rocher de la Vierge* harkaitzera egin beharreko bisitak. Uharri ausarta da, itsasoan sartzen dena. Pasagune metaliko batetik iritsi gaitezke haraino. Harkaitzaren gainean Ama Birjina dago, eta gurutze bat ere bai, *La Surprise* ontzia XIX. mendearen amaieran hondoratu zenean desagertu ziren guztien oroitzapenetan.

Begiratoki bitxi horretatik ikusten da Iparraldeko kostaldea, *Aiako Harriaren* hiruhortza, *Larrungo* euskal akropolia, *Jaizkibel* soildua, eta Gipuzkoako hainbat mendi, argi more misteriosu batez inguratuta.

Ama Birjinaren harkaitza utzi, eta, haren parean, Itsasoko Museoa ikusiko dugu, 1933an ireki zutena. Ikerketa hidrobiologikoen zentro garrantzitsua da eta aquariuma ere badu.

Bellevue kasinotik aurrera, mendebaldetik ekialdera, *Hondartza Handia* dago. *Hôtel du Palais* parean *Miramar* hondartzarekin elkartzen da, eta hura *San Martin* lurmuturreraino iristen da. Hondartza ospetsuaren alboetan harkaitz handiak daude. Gainera, oinezkoentzako pasealeku zabala dago, *udal-kasinoaren* arkupeak oso atseginak dira eta *Enperatrizen lorategiak* ikusgarriak.

Hondartzaren lehen lerroan ageri da *Hôtel du Palais* bikaina, inguruan lorategiak ditu eta burdina-hesi artistikoa. Viktoriar garaiko beste eraikinek bezala, hotelak izen ona ematen dio Biarritzi.

Ingalaterrako Viktoria erregina betikotu zuen Real de Sarte monumentu batean. Errusiarrek badute tenplu ortodoxoa, juduek sinagoga, eta turistek ehun bat hotel, ostatu, dantzaleku eta kafetegi jendetsu.

Itsasertzeko kaleek eta denda tentagarriez betetako bulebar ederrek ere nagitasunera gonbidatzen gaituzte, *dolce far niente*...



Le Rocher de la Vierge.

Biarritz, ocupada por los alemanes, sufrió las consecuencias del bombardeo de la aviación aliada, el 27 de marzo de 1944, en el que murieron 150 civiles.

Excursión a Arrangoitze

Los franceses conocen esta comuna con el nombre de **Arcangues**. Nos dirigiremos a ella por el barrio de *la Négresse* donde está la bella estación de ferrocarril y el *lago de Mouriscot*, llamado así porque en 1611 se refugiaron en sus orillas varios centenares de los cuarenta mil moriscos expulsados de España. Las revistas del corazón dicen que Alfonso XIII conoció a orillas de este lago a la que iba a ser su egregia esposa Victoria Eugenia de Battenberg.

A 4 km se halla el centro urbano de Arcangues, encantador pueblecito agrícola y residencial del interior de Lapurdi donde tuvo su chalet vacacional el cantante irundarra Luis Mariano y en cuyo cementerio quiso ser inhumado. La tumba del célebre Luis Mariano aparece sempiternamente cubierta de flores frescas. El que tanto ensalzó las bellezas naturales, es recordado por sus fans...

Este camposanto es un auténtico jardín, escalonado en varias terrazas que salvan el declive del lugar, de donde se goza de unas panorámicas excepcionales. En este cementerio-jardín, admiraremos la mejor colección de estelas discoideas labortanas.

Biarritzek (alemanek okupatua) aliatuen abiazioaren 1944ko martxoaren 27ko bonbardaketaren ondorioak pairatu zituen eta 150 zibil hil ziren.

Arrangoitzera txangoa

Frantsesek Arcangues esaten diote Arrangoitzeri. Hara joateko *la Négresse* auzorako bidea hartuko dugu. Han dago tren-geltokia, baita *Mouriscot* aintzira ere. Hala deitzen diote 1611n Espainiatik bidalitako 40.000 moriskoe-tatik ehunka batzuk aintziraren ertzean babestu zirelako. Bihotzeko aldizkariak diote Alfonso XIII.ak aintzira horren ertzean ezagutu zuela gero haren emazte ospetsua izango zena: Viktoria Eugenia Battenberg.

4 km-ra dago Arrangoitzeko herrigunea, nekazaritza-girokoa herri txikia eta bizileku atsegina. Lapurdiko barrualdean dago. Luis Mariano abeslari irundarrak Arrangoitzen zeukan txaletean pasatzen zituen oporrak, eta bertako hilerrian lurpera zezatela eskatu zuen. Haren hilobiak beti izaten ditu lore jarri berriak. Edertasuna hainbeste laudatu zuen abeslaria gogoan dute jarraitzaileek...

Hilerria benetako lorategia da, zenbait terrazatan antolatua dago, leku maldatsuan baitago. Bistak apartak dira. Hilerri-lorategi horretan ikus daiteke Lapurdiko disko-formako hiliarrien bildumarik ederrena.

La iglesia contigua tiene dos galerías o tribunas prolongadas hasta el mismo presbiterio y talladas con profusión. A destacar el buen trabajo en madera en la pareja de ángeles que flanquean el altar y la araña imitando a bronce. Podemos ver también un original vía-crucis de terracota esmaltada.

El templo, el frontón con las dos mesas de ciclópeas piedras, Herriko Etxea y las escuelas forman un lindo conjunto.

En el palacio de los marqueses de Arcangues montó su cuartel provisional el inglés Wellington.

Fiestas

Las fiestas mayores de Biarritz se celebran el 11 de noviembre en honor de San Martín.

Este día son investidos los nuevos caballeros de la *Confrérie de l'Operne de Biarritz*. Su logotipo es el percebe. Resultan elegidas personas que han trabajado en favor de la ecología marina.

En una población eminentemente turística como Biarritz, durante todo el verano se suceden las galas de pelota, los concursos hípicas, recitales y conciertos, festivales de folklore, ski acuático acrobático, cruceros, varietés, torneos de rugby, galas tauromáquicas y verbenas.

Alboko elizak bi galeria edo tribuna ditu, presbiterioraino iristen direnak, oso landuak. Aipatzekoak dira aldarearen alboetako bi aingeruak, egurrez ederki eginak, eta brontzezkoa dirudien argi-armiarma. Halaber, terrakota esmaltatzeko *via crucis* original bat ere ikus dezakegu.

Eliza, pilotalekua, ziklope tankerako harrizko bi mahaiak, Herriko Etxea, eta eskolak. Multzo polita osatzen dute benetan.

Arrangoitzeko markesen jauregian jarri zuen behin-behineko kuartel Wellington jeneralak.


Festak

Biarritzko festa nagusiak azaroan 11n ospatzen dituzte, San Martinen omenez.

Egun horretan *Confrérie de l'Operne de Biarritz* erakunde-ko zaldun berriak izendatzen dituzte. Lanperna da haien logotipoa eta itsasoko ekologiarene alde lan egin duten pertsonak hautatzen dituzte.

Turismoan oinarritutako hiria izanik, uda guztian ekitaldi ugari izaten dira, bata bestearen atzetik: pilota-jaialdiak, hipika-lehiaketak, erreztaldiak eta kontzertuak, folklore-jaialdiak, uretako eski akrobatikoa, itsas bidaiak, ikuskizunak, errugby-txapelketak, zezenketak eta gau-festak.

Le Rocher de la Vierge.



SAN JUAN DE LUZ

Sin lugar a dudas, es el pueblo costero labortano que mejor conserva la identidad vasca.

El nombre de San Juan de Luz aparece en documentos de los albores del s. XII. En contra de la creencia generalizada, el inicio de la villa como comunidad urbana, no fue marinero sino más bien agrícola.

Cuando las huestes del rey de Navarra tomaron la parroquia de Donibane allá por 1245, sólo se cita la actividad labriega. Las casas nobles y de labranza están ubicadas en los barrios interiores de *Akotz*, *Jalday*, *Fagonda*, *Urthaburu*, *Fagozu*. No se refleja pues, ninguna actividad marítima.

Tradición marinera y pesquera

En su incesante hurgar por los archivos de Iparralde, Goyenche descubre a los primeros marinos donibanetarras en 1545: *Martin de Barreyne*, armador del ballenero *Saintserro*; *Johannicot Etchauesten*, patrón del ballenero *Saint Joan de Bus*; y *Pellento de Reparatse*, colega de los anteriores.

¿Alcanzaron los marinos vascos las costas del Nuevo Mundo antes que el propio Cristóbal Colón?

Aunque de momento carecemos de documentos comprobatorios, no es de extrañar que estos avezados marinos, cuyo único sustento era la captura del cetáceo, en persecución obsesiva del mismo llegasen a desembarcar en la otra orilla del Atlántico, adelantándose al descubridor oficial.

Las islas de Saint Pierre y Miquelón al Sur de Terranova, se encuentran mayoritariamente habitadas por descendientes de arrantzales de San Juan de Luz y su hinterland, llegados a aquellas lejanas latitudes para capturar ballenas, y cuando éstas iban desapareciendo, derivaron a la pesca del bacalao. El descubrimiento del bacalao y, consiguientemente, el desarrollo de la pesca de altura, permitió que la villa se rehiciese de los incendios y calamidades padecidos.

Posteriormente al siniestro acaecido en 1558 del que únicamente se salvó la casa *Ezkerrenea*, se construyeron el templo parroquial, la casa consistorial, las viviendas sencillas para menestrales y nautas y las regias mansiones reservadas a los armadores y corsarios... que también los hubo.

Por lo tanto, superada la depuración brujeil, el s. XVII fue el siglo de oro para San Juan de Luz. En cambio el siguiente, le resultó adverso, en especial para los hombres de mar. En 1708 un temporal de mar, registrado en algunas crónicas con caracteres de maremoto, rompió los muros de contención, derribó casas e inundó el pueblo.

Cinco años más tarde, por culpa del Tratado de Utrecht, Francia pierde Canadá y Terranova. Holandeses e ingleses hacen gala de su poderío naval y para colmo de desdichas se desata la Revolución que paraliza la vida portuaria a excepción de la pesca de la sardina y su elaboración conservera, que se sigue manteniendo porque las capturas se realizan en el mismo litoral. Apesadum-

DONIBANE LOHIZUNE

Zalantzarik gabe, Lapurdiko kostaldean identitate euskalduna hobekien gorde duen herria da.

Donibane Lohizune XII. mendearen hasierako dokumentuetan agertzen da. Herrigunearen hastapenak arrantzari lotuak izan zirela uste dute askok, baina garai haietan nekazaritza zuten jarduera nagusi.

Nafarroako erregearen tropek Donibaneko parrokia-eliza hartu zutenean, 1245ean, nekazaritza soilik aipatu zuten. Etxe dotoreak eta nekazaritza-etxeak barrualdeko auzoetan zeuden: *Akotz*, *Jalday*, *Fagonda*, *Urthaburu*, *Fagozu*. Horrenbestez, itsasoari lotutako jardueren berririk ez dugu.

Itsasoari eta arrantzari lotutako tradizioa

Iparraldeko artxiboetan beti ere zokomiran, Goyenche aurkitutako itsasgizon donibandarrak antzinakoenak 1545ekoak dira: *Martin de Barreyne* (*Saintserro* baleontziaren armadorea); *Johannicot Etchauesten* (*Saint Joan de Bus* baleontziaren patroia; eta *Pellento de Reparatse*, aurrekoen kidea.

Euskal itsasgizonak Mundu Berriaren itsasertzera lehena go iritsi al ziren Kristobal Kolon bera baino?

Frogagiririk ez dugu oraingo, baina ez da harritzekoa baleak harrapatzetik soilik bizi ziren itsasgizon trebe haiek, balea harrapatzearekin itsututa, Atlantikoaren beste ertzearaino iristea, aurkitzaile ofizialari aurrea hartuta.

Ternuako hegoaldeko Saint-Pierre eta Mikeluneko biztanleak Donibane Lohizune inguruko arrantzaleen ondorengoak dira. Garai hartako arrantzaleak baleen bila joan ziren, eta baleak desagertzen ziren heinean, bakailaoak harrapatzeari ekin zioten. Bakailaoa aurkitzean ur handitako arrantza garatu zuten, eta hari eskerrak suteak eta bestelako zoritxarrak gainditu zituen Donibane Lohizunek.

1558an gertatutako lazeriaren ondoren (*Ezkerrenea* etxea soilik salbatu zen), eraikitzeari ekin zioten: parrokia-eliza, udaletxea, langile eta marinelen etxe xumeak, eta armadoreen eta kortsarioen etxe dotoreak eraiki zituzten, denetarik baitzegoen hirian.

Horrenbestez, sorginen harrapaketa gainditu ostean, XVII. mendea urrezko mendea izan zen Donibane Lohizunerentzat. Aitzitik, XVIII. mendea aurkakoa izan zen, batez ere itsasgizonentzat. Izan ere, 1708an berebiziko ekaitza pairatu zuten, kronika batzuetan itsasikaratzat jo zutena. Ekaitzak euste-hormak apurtu zituen, etxeak eraitsi zituen, eta herria urpean gelditu zen.

Bost urte geroago, Utrechko Itunaren ondorioz, Frantziak Kanada eta Ternua galdu zituen. Holandarrek eta ingelesek indar handia hartu zuten itsasoan; eta, gainera, iraultza hasi zen, eta portua geldirik geratu zen. Sardinaren arrantza eta haren kontserbagintza izan ziren salbuespen bakarrak, itsasertzean bertan harrapatzen zituztelako. Hainbeste zoritxarrekin atsekabeturik, familia askok erabaki zuten beste udalerrira batera joatea. Hortaz, XVIII. mendean, Donibane Lohizuneko biztanleen kopurua ia erdira jaitsi zen: 4.000 biztanle izatetik 2.440 izatera.

brados por tanta adversidad, numerosas familias optan por trasladarse a vivir a otro municipio de tal suerte que el número de habitantes donibanetarras en el s. XVIII, se redujo casi a la mitad, esto es, de 4.000 descendió a 2.440 habitantes.

En la actualidad, un crecido número de ciudadanos descienden de vizcaínos y guipuzcoanos, bien refugiados de las guerras carlistas, o bien profesionales de la pesca.

La pesca, actividad de arraigo ha elevado a San Juan de Luz al rango de primer puerto pesquero artesanal de Iparralde. Algunos de ellos transcurren varias temporadas continuadas probando suerte en aguas de Irlanda. Por lo que hemos detectado, que el color preferido para pintar los barcos es el azul.

El núcleo urbano

En la zona más próxima a la desembocadura del Ugara (La Nivelle) abarloan las motoras, canoas y balandros deportivos. Asimismo, zarpan de este puerto barquitos que realizan cruceros turísticos estivales.

Con el perfil tutelar y enhiesto del *Larrun* limitando el horizonte, sesteando al borde del océano este típico pueblo con calles de acusada personalidad: *Gambetta*, *Mazarino*, *Thiers*, *Sopite*, *de la Ballena*, *Plaza de Luis XIV*, así como el puerto de pescadores...

Entre la repintada hilera de pulcras casas con vigas y paneles de madera, hemos de subrayar el *palacio de Lohobiague* con fachada rematada en dos torres, llamado asimismo *Palacio de Luis XIV* porque este monarca se hospedó en él. Actualmente está transformado en museo. Junto a él, la linda casa consistorial (año 1635) con campana en espadaña para tocar a rebato. La sala capitular se enriquece con una valiosa imagen renacentista de Santiago peregrino y tres óleos del pintor vizcaíno Ramiro Arrue. En la escalinata de acceso, un Luis XIV a caballo, fundido en bronce, nos recuerda que aquí tuvo lugar el matrimonio civil del Rey Sol con la princesa María Teresa de España.

Sobre las aguas del puerto, el imponente palacete *Haraneder* o *Juanoenia* más conocida por la *casa del Infante* con fachada combinada de piedras sillares blancas y rojas. A pocos metros, en el número 2 de la calle Mazarino la bella casa *Granga Baila*, donde Wellington montó su cuartel general en 1813. En la siguiente rúa, muy pintoresca, que une la plaza con la playa y que se llama calle de la República, está la ya citada casa *Ezkerrenea*, la más antigua de la villa.

En el número 18 de la calle Gambetta, frente a la iglesia, la *casa Labrousche* propiedad del corsario *Josep Labrousche*, alcalde de San Juan de Luz desde 1808 hasta 1853.

La iglesia de San Juan Bautista

Hacia la mitad de la tentadora calle peatonal Gambetta se alza la iglesia de San Juan Bautista, sustitución de otra gótica que existió. El 9 de junio de 1660, cuando sucedieron los fastos de la boda canónica de Luis XIV y María Teresa, la obra de fábrica estaba sin concluirse. Por ejemplo, la puerta que utilizó la corte real se encuentra

Gaur egun, hiritarren kopuru handi bat bizkaitarren eta gipuzkoarren ondorengo dira. Haietako batzuk karlistadetan hemen babesa aurkitu zuten, eta beste batzuk arrantzale profesionalak ziren.

Arrantza oso errotuta dago Donibane Lohizunen, eta artisau-arrantzaren alorrean Iparraldeko portu nagusia da. Ontzi batzuk Irlandako uretan ahalegintzen dira behin eta berriz denboraldi bakoitzean. Ontziak margotzeko kolorerik kuttunena urdina dute, antza.

Hirigunea

Ugarana (La Nivelle) ibaiaren bokaletik gertu uzten dituzte kirolerako eta aisialdirako txalupa motordunak, kanoak eta bailandrak. Halaber, portu horretatik itsasoratzen dira udako itsas bidaiak egiten dituzten ontzi txikiak.

Zeruertzean Larrun mendiak babesa ematen diola, herri tipiko hori abaroan dago ozeanoaren ertzean. Nortasun handiko kaleak ditu: *Gambetta*, *Mazarino*, *Thiers*, *Sopite*, *Balearena*, *Luis XIV.aren plaza*, eta arrantza-portua ere bai.

Egurrezko habe eta panelak dituzten etxe garbi eta behin eta berriz margotuen ilaran azpimarratzekoa da *Lohobiague jauregia*, fatxadaren alboetan bi dorre dituen. *Luis XIV.aren jauregia* ere esaten diote, etxe horretan ostatu eman baitzioten. Gaur egun museoa da. Haren ondoan udaletxe polita, 1635ean eraikia, kanpai-hormarekin, ordara jotzeko. Kapitulu-gelan Errenazimentuko Santiago erromesaren irudi baliotsu bat dago, eta Ramiro Arrue margolari bizkaitarraren hiru olio. Sarrerako mailadian, brontzezko Luis XIV.ak zaldi gainean gogora ekartzen digu hemen ezkondu zirela zibirez Errege Eguzkia eta Espainiako Maria Teresa printzesa.

Portuko uren gainean *Haraneder* jauregitxo bikaina, edo *Juanoenia*, *Infantearen etxea* izenez ezagunagoa, fatxada harlanduz egina, harri zuriak eta gorriak nahastuta. Metro gutxitara, Mazarino kaleko 2. zenbakian *Granga Baila* etxe ederra dago; Wellingtonek etxe horretan jarri zuen kuartel nagusia 1813an. Hurrengo kalea bitxia da, plaza eta hondartza elkartzeko ditu eta Errepublikaren kalea izena du; kale horretan dago lehen aipatu dugun *Ezkerrenea* etxea, hiriko zaharrena.

Gambetta kalearen 18. zenbakian, elizaren aurrean, *La-brousche etxea* dago, *Josep Labrousche* kortsarioarena, Donibane Lohizuneko alkatea 1808tik 1853ra.

San Joan Bataiatzailearen eliza

Oinezkoentzako Gambetta kale tentagarriaren erdialdean dago San Joan Bataiatzailearen eliza. Antzinako eliza gotikoa zegoen tokian eraiki zuten. 1660ko ekainaren 9an, Luis XIV. eta Maria Teresaren arteko ezkontza kanoniko arranditsua ospatu zutenean eliza bukatu gabe zegoen. Esate baterako, errege-gorteak erabili zuen atea horma-



Panorámica de San Juan de Luz / Donibane Lohizune.

tapiada y la actual, de inspiración gótica, es muy posterior.

El interior lo podemos considerar prototípico de templo labortano con tres formidables galerías lanzadas hacia el ábside con antepechos y balaustres de madera labrada y torneada. Este singular coro de tres plantas se rehizo en 1856 por orden de Napoleón III.

En presbiterio elevado se ensambla el retablo de mayor empaque de todo Lapurdi, una acabada obra de Martín de Bidache o, para ser más exactos, de su taller. Acoge en sus hornacinas una colección de imágenes uniformemente sobredoradas pero de distinta gubia. San León, patrono de la Diócesis y San Roque, protector de peregrinos están perpetuados. Debajo del presbiterio se encuentra la sacristía que alberga valiosos regalos reales.

En uno de los retablos laterales merece ser contemplado el cuadro *La Adoración de los Magos*, del pintor Restou fechado en 1727. También es de buena factura el óleo de la *Natividad* y el conjunto de arañas talladas en madera y sobredoradas imitando a bronce. Asimismo, encontramos un buen trabajo de talla, cual es el púlpito sostenido por monstruos.

De la anchurosa y única nave cuelga un *exvoto* de *El Águila* barco imperial donde viajaba Eugenia de Montijo que estuvo a punto de perecer debido a una galerna. El órgano hecho por Gérard de Rodez es el mismo que derramó sus melodías durante la boda real. El coro dispone de acceso exterior en escalera de piedra con artístico antepecho forjado en hierro por Pierre Etcheverry, el herrero de Akotz. La base del campanario octogonal se horada en forma de atrio dando comunicación a dos calles. Gran parte de la liturgia de esta iglesia se efectúa en euskera.

Continúa el paseo

Una avenida intencionadamente elevada respecto a las calles que articulan con ella, festonea el amplio arenal donibanetarra, respetado por el océano, gracias al tesón humano y a la técnica que domó sus embates. Frenar el ímpetu del mar con los diques de Sokoa, Artha y Santa Bárbara, así como canalizar el río permitieron el nacimiento de la actual estación balnearia.

tua dago eta gaur egungoa, gotikoa inspirazio-iturri duena, askoz ere beranduago egin zuten.

Barrualdea Lapurdiko elizen prototipoa da. Hiru galeria bikain ditu, absiderantz; karelak eta balaustreak egur landuaz eta torneatuaz eginak. Hiru solairuko koru aparta berriaz eraiki zuten 1856an, Napoleon III.aren aginduz.

Jasotako presbiterioan dago Lapurdi guztiko erretaularik bikainena. Martin de Bidacheren artelana da, edota, zehatzago esateko, haren tailerrean egindakoa. Horma-hutsarteetan irudi hunkigarriak daude, gubia desberdinez eginak. San Leon, elizbarrutiaren zaindaria, eta San Roke, erromesen babeslea, betikotuta daude. Presbiterioaren azpian sakristia dago, errege-opari baliotsuen gordeleku.

Alboko erretaula batean ikustekoa da *Errege magoen adorazioa*, Restou margolariaren artelana, 1727an egina. *Jaio-kundea* ere olioaz ederki egindako lana da, eta egurrezko argi-armiarma urreztatutak, brontzezkoen itxurakoak. Hala-ber, ederki zizelkatua dago munstroek eutsitako pulpitua.

Nabe zabal bakarrean ofrenda bat zintzilik dago eta *El Águila* itsasontzi inperialari dagokio. Eugenia de Montijo ontzi horretan ibiltzen zen eta galerna batean ia-ia bizia galdu zuen. Organoa, Gérard de Rodezek egina, errege-ezteietako berbera da. Korura sartzeko kanpoko harrizko eskailera erabil daiteke; burdinazko kare artistikoa du, Pierre Etcheverryk forjatua, Akotzeko errementariak. Oktogono-formako kanpandorrearen oinarria atari modukoa da, eta bi kaletara ematen du. Elizako liturgiaren zati handi bat euskaraz egiten dute.

Paseoan

Gainerako kaleak baino altuago propio egindako hiribide bategi apaintzen du Donibaneko hondartza. Ozeanoak errespetatu du, gizakien irmotasunari esker, erasoak menderatzeko teknikak lagun. Ibaia bideratu zuten, eta Sokoa, Artha eta Santa Barbara dikeek baretu zuten itsasoaren oldarra; hartara, gaur egungo bainu-hiria eraiki ahal izan zuten.



El *Museo Ducotenia* ya no existe. Sin embargo, la urbe en sí misma es un museo viviente, animado por la graciosa combinación de la tradición y las estridencias novedosas. Si los peregrinos jacobeos contaron con un hospital en Donibane, los modernos trotamundos disponen de decenas de hoteles, restaurantes y campings.

Excursión a Askain, Sara, Zugarramurdi y Baztán

Al abandonar San Juan de Luz, a la orilla derecha, sobre la ría, está el barrio residencial de *Urdazuri*. Algo más adelante el complejo turístico de *Chantako*.

Tiene fama el golf de Chantako frecuentado en verano por el político galo Chanban Delmas.

Askain

Dejando a un kilómetro a mano izquierda el refugio carlista de Serres, a la vuelta de la esquina nos espera **Askain**, pueblecito donde Pierre Loti quedó empapado del ambiente popular para así adornar su estro literario en la novela *Ramuntcho* que la pergeñó en el *Hotel Otharre*.

Resulta encantador el centro urbano compuesto por la iglesia de la Asunción, Herriko Etxea, el juego de pelota, la fuente que mana las frescas aguas del Larrun, algunos hoteles y casitas.

La *iglesia* tiene todavía en su fachada lateral la puerta destinada para los discriminados *cagots* o *agotes*. Interior con tres galerías superpuestas, una imagen valiosa de San Mateo y el exvoto de un velero. En el cementerio contiguo hay estelas discoideas y lápidas, una de las cuales pertenece a un indiano que se precia de serlo.

Hau da thomba Miguel D'Arraiaga Azcaingo Indiano Jau-narena. Hilla Octubre 22-1651.

La existencia de numerosos hoteles y varios campings en un municipio de unas dos mil almas pregonan el excelente clima y paisaje de Askain.

Ducotenia museoa ez da jada existitzen. Hiria bera, ordea, benetako museo bizia da, tradizioaren eta berrikuntza kirrinkarien nahasketa bitxia. Done Jakue bideko erromesek ospitalea zuten Donibanen, eta ibiltari modernoek dozenaka hotel, jatetxe eta kanpin.

Azkainera, Sarara, Zugarramurdira eta Baztanera txangoa

Donibane Lohizunetik irtetean, itsasadarraren eskuinaldean *Urdazuri* bizitegi-auzoa dago. Zertxobait aurrerago *Chantako* turismo-gunea.

Chantakoko golfa entzutetsua da, Chanban Delmas politikari frantsesa ere ohiko bisitaria dute uda-garaian.

Azkaine

Ezkerraldean, kilometro batera, Serres babesleku karlista utzi eta berehala aurkituko dugu Azkaine. Herri horretan Pierre Loti ongi jabetu zen giro herrikoiaz, *Ramuntcho* nobelaren goiargi literarioa edertzeko. *Otharre* hotelean zirraborratu zuen, hain zuzen.

Herrigunea xarmagarria da: Jasokunde eliza, Herriko Etxea, pilotalekua, Larrungo ur freskoa jariatzen duen iturria, hotel batzuk eta etxetoak.

Elizaren alboko fatxadan *cagot* edo *agoteentzako* bereizkeriazko atea ikusten da oraindik ere. Barnealdean hiru galeria ditu elkarren gainean, San Mateoren irudi baliotsu bat ere bai, eta belaontzi bat, eliztarren baten ofrenda. Alboko hilerrian disko-formako eta bestelako hilarriak daude. Haietako bat indiano batena, indiano izateaz loriatzen zena:

Hau da thomba Miguel D'Arraiaga Azcaingo Indiano Jau-narena. Hilla Octubre 22-1651.

Bi mila biztanle goiti-beheiti dituen udalerrri batek hainbat hotel eta zenbait kanpin izateak ondo asko adierazten du Azkaineko giroaren eta paisaiaren bikaintasuna.